

BALEIKE

210. ZENBAKIA. EURO BAT
2012ko MAIATZA

www.baleike.com

DANTZAREN HAUTSAK ASTINDUZ

Lehen urtea bete berri du Astindu dantza taldeak. Maiatzean hainbat dantza ikuskizun izango dira herrian.



ELKARRIZKETA: XABIER IRURETA ETA MANUEL MARI GARATE

BALEIKEko irakurleentzat

%5eko deskontua!

Maiatzaren 15etik 31ra eginiko 100€ eta 1000€ arteko edozein erosketetan "errekorte" hau aurkeztuaz.



FAGOR garbigailua

F8212

- 1.200 bira/min
- 8 kg



449€

FAGOR

7

URTEKO
GARANTIA

FAGOR
garbigailua

F7212

- 1.200 bira/min
- 7 kg



449€

FAGOR
INDUKZIOA
IF3BS



369€

FAGOR
garbigailua

F6012

- 1.200 bira/min
- 6 kg



339€

INOX



699€

FAGOR

KONBIA FFK6835X

- No Frost
- Inox
- 200 x 60 cm



ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endanetazumaia.com

BALEIKE 210

AZALA A. Rubio Aprea



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzardea: Agustín Zubimendi eta Xabier Azkue.

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Ainara Lozano

Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon Urbieta eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

agustinzubimendi@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Legе gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

12

baleike +

SENTITU,
ASKATU,
DANTZATU

5

CAF-ELHUYAR SARIA

8

hondakinen kudeaketa
HERRITARREK HARTU
DUTE HITZA

19

elkarrizketa
HERRIKO BI ARTISTA

29

agenda
MAIATZA-EKAINA

30

bertso xorta
GIPIZKOAKO
BERTSO ESKOLAK

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udalak





Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES, Izoituak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak
a3zumala@terra.es

Kopiak eta materiala
tel/Faxa: 943 14 31 20



L I B R U R U D E N D A

AIZPURUA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569



ALAI BERRI
supermerkatuak

Asteleheneetik igandera 08:00etatik 15:00etara
eta 17:00etatik 22:00etara, urte guztian.
Etxera banaketa doan

Alai auzategia, 3 • 943 118 394

ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261

GOROSTI BODEGA

ELORRIAGA AUZOA, DEBA, GIPUZKOA
Tfno: 670408439 Juan M^e Echave
692605223 Isabel Etxaniz

flysch
brakolina

Galeriako Trekolina
BENDINACIONEN DEBUTOLAN



ALGORRITABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA



ANA
ETXERKO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157 anaetxeokozapiak@telefonica.net

ILEAPAINDEGIA



D'Ana

Kantauri plaza, 6. behea tel. 943 117 408

Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com


Erakusketa. Hego kalea, 4-5
Denda. Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943 862 532 Tel.: 943 861 631

ARGISUN
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girozea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com



OKINDEGIA
Arkupe

Nagusia, 2 - tel. 943 561 501
ZUMAIA

OGI-EDER



ARRUTI
Baltasar Etxabe 2/9
Zumaia 943016429



AUTOS ZUMAIA

Urola plaza, 3-5 tel. 943 861 485



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa tel./faxa 943 148 306
bakun@euskalnet.net



Basadi albaitaritzza

Ribaitario
Itaki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310
www.basadiclinicvet.com
www.basadiclinicvet.com

Golez: 11-13 / Arrabaldiz: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatean bita
Lanaldietarako: 605 728 737 Etxez ebeko zerbitzua

BASUSTA
ERRETEGIA



Patutza Etxezarreta, 25 tel. 943 862 073



PAPER diseinu grafiko


Roberto Gutierrez
696 211 111 • rgutierrez@rgutierrez.org • www.rgutierrez.org

TESTUA: GORKA ZABALETA
ARGAZKIAK: ERREDAKZIOA / O APREA

ITSAS HONDOTIK BILDUTAKO SARIA

Zientzia-dibulgazioko CAF-Elhuyar saria irabazi du Baleikeko kazetari Gorka Zabaletak, 2011ko otsailean aldizkari honetan argitaratutako "Itsas hondoa eskura. Mapetan agertzen ez zen mundua" erreportajearekin. Otsailaren 26an izan zen sari banaketa ekitaldia, San Telmo museoa.

TESTUA: ERREDAKZIOA
ARGAZKIAK: ELHUYAR



Zientzia-kazetaritzaren arloko saria jaso du Gorka Zabaletak, baina izan dira saritu gehiago: Patricia Navarro, Alfredo Sarmiento eta Jone Omar kimikariek eta Jon Makibar ingeniariak jaso dituzte dibulgazio-artikuluaren kategoriako sariak, artearen kimikari eta biofindegiei buruzko artikulu banarengatik. Elhuyar Fundazioaren Merezimendu saria Jose Mari Elortza EHUko kimika-irakaslearentzat izan da.

Zabaletaren erreportajeaz “kazetariaren estilo zuzena, dokumentazio zabala, ikuspuntu desberdinak biltzeko gaitasuna, erabilitako grafiko ederrak eta gaurkotasunarekin lotzeko abilezia” goraiatu ditu epaimahaiak, eta, horrekin batera, aldizkarian “tokiko gaiak zientziarekin uztartzeko egilearen ahalegin mamitsua”.

Saria jasotzean, zientziak tokiko hedabideetan ere lekua baduela arrazoitu zuen, “zientziak inguratuta bizi baikara. Zientzia leku guztietan dago, Jainkoa bezala”. Horrekin batera, tokiko hedabideen lana goraiatu zuen: “Askotan geu ere mapetatik kanpo sentitzen gara, komunikazioaren itsaso gero eta zabalago horretan galduta”. Epaimahaiari eskerrak eman zizkion, “sari honekin gure irla txikia mapan kokatzen laguntzeagatik”.

Eskertzak

*Baleike*ko lankideekin batera, erreportajearen parte hartu zutenak aipatu nahi ditu Gorka Zabaletak: “Eskerrak eman nahi dizkiet, modu batera edo bestera, erreportajea posible egin zutenei. *Baleike*ko lankideei, lehenik eta behin; eta haiekin batera, Joxerra Zubia (ederra azaleko argazkia!), Ander Unanue, Aitor Leiza eta Iñaki Zorita urpekariei, geure begiekin sekula ikusiko ez duguna nolako den kontatzeagatik; Juan Ramon Larrañaga eta Jose Ramon Elosua arrantzaleei, hain tradizio aberatsa gurekin konpartitzeagatik; Javier Carballo argazkilaria: ohorea da zure eskuzabaltasuna; eta Asier Hilario eta Adolfo Uriarte zientzialariei, ezjakinoi zientzia erakargarri egiteagatik. Bidea egiten lagundu zidaten beste batzuk aipatu gabe gelditu dira, baina haiek ere gogoan ditut. Mila esker guztioi, zuen laguntza gabe ez leudeke ez erreportajerik, ez saririk”

ZIENTZIA-KAZETARITZA ARLOKO CAF-ELHUYAR SARIA

Erreportajea: **“Itsas hondoa eskura. Mapetan agertzen ez zen mundua”**.

2011ko otsaileko *Baleike* aldizkarian argitaratua.

Egilea: **Gorka Zabaleta**

Epaimahaia:

Itziar Alkorta, Zuzenbide Zibileko irakaslea eta bioetikaria.

Jose Maria Pitarke, CIC-NanoGUNEko zuzendaria.

Juan Ignacio Perez Iglesias, Kultura Zientifikoko EHU-BFA katedrako zuzendaria.

Txema Ramirez de la Piscina, Euskal Herriko Unibertsitateko Kazetaritzako irakaslea.

Jose Mari Rodriguez Ibabe, Elhuyar Fundazioko lehendakaria eta CEITeko ikertzailea.



“AZTIREN MAPAK ERAKUSTEN DUENA ETA ARRANTZALEEK TRADIZIOZ DAKITENA ALDERATZEN SAIATU NAIZ”

Aztik argitaratutako euskal kostaldeko itsas hondoaren mapa izan zen erreportajearen abiapuntua. Elhuyarko kazetari Guillermo Roak egindako elkarrizketa honetan azaltzen ditu egileak lanaren nondik norakoak. Baleike.com webgunean aurkituko duzue erreportajea, irakurri nahi izanez gero.

GUILLERMO ROA / ELHUYAR

Erreportajea esaten duzu itsasoa ura dela, ez dagoela besterik, ez dagoela erreferentziarik. Azpian dagoena ederki ezkutatuta dago, ezta?

Hala da, bai. Mapak erabili izan ditugu inguratzen gaituena zehazteko, ezagutzeko eta menperatzeko. Baina itsasoa dena ur da. Aztik egin duen mapa honi esker lehen aldiz ikusi ahal izan dugu nolakoa den gure kostaldeko itsas hondoa, ehun metroko sakoneraraino. Berrikuntza hori izan zen erreportajearen abiapuntua. Baina ikusi genuen beste hari batzuk ere bazituela gaiak, eta agian denen artean zenbait galderari erantzuteko moduan izango ginela. Horregatik, alde zientifikoarekin batera, arrantzaleen eta urpekarien ikuspuntua jaso nahi izan genuen.

Nolakoa da gure itsas hondoa?

Ezjakinak garenontzat, gauza bitxi dezente ikus daitezke mapa horretan. Aurkitu diren arrastoekin, ondorioztatu da duela 20.000 urte kosta lerroa bost, sei edo zazpi kilometro urrunago zegoela, itsasorantz. Hau da, itsasoaren maila ehun metro beherago zegoela. Agian pentsatuko duzue 20.000 urte asko direla, baina ordurako gure arbasoak bizi ziren Ekain inguruan... Zer arrasto dira horiek? Esate baterako, Urola ibaiaren antzinako ubidea ikusten da garbi-garbi. Edota koska moduko batzuk. Koska horiek antzinako labarrak dira.

Kontatzen ari zarena izan zitekeen unibertsitateko ikasgai bat, baina balio erantsia ematen diona da zure herriko kontuez ari zarela. Hor dago, bertan daukagu.

Zientzia askotan arrotza egiten zaigu, unibertsitatearekin edo laborategiekin lotzen dugu. Baina zientziari lotutako ha maika gai ditugu inguruan. Eta irakurleari zientziako gaiak kontatzen badizkiozu etxe ondoko adibide batetik abiatuta, orduan interesatuko zaio, modu ulergarrian azalduz gero.

Aztiren mapa da abiapuntua, baina beste hari batzuk ere baditu erreportajeak.

Bai. Galdera batzuk sortu zitzaizkidan. Gizakiak milaka urte daramatza kostaldean bizitzen, itsasoa ustiatzen. Mapa hauek eta gps-ak agertu baino lehen, nola moldatzen ziren gure arrantzaleak itsasoan orientatzeko, arrantza lekuak aurkitzeko? Orduan bururatu zitzaidan bi informazio iturriak alde-

ratzea: alde batetik, Aztiren mapak erakusten zuena; bestetik, mende mende arrantzaleek esperientziaren bidetik pilatutako informazioa, tradizioz dakitena. Eta hori guztia maparen gainean kokatzea.

Politak dira haien hitzak. Urpekariak diote: “Hogei metrotik behera badirudi Ilargian zaudela”. Eta arrantzaleek: “Perretxikotarako leku ezkutuak bezala, arrantzakoak ere gorde egiten dira”.

Arrantzaleetako batek dio mapa irakurtzen dakienarentzat informazio gehiegi dagoela... Arrantzarako tradizioa duten etxeetan belaunaldiz belaunaldi gorde dira arrantzarako leku egokiak. Horiek familatik ez dira ateratzen. Sekretuak dira. Aztiren mapa ikustean, segituan kokatzen dituzte leku berezi horiek. Jakinez gero itsas hondoaren ezaugarriek nola baldintzatzen duten arrantza, mapa horretan oso erraz identifikatzen dira leku egokienak.

Jakintza hori oso bitxia da. Eta oso bitxia da baita ere nola orientatzen diren. Nola egiten zuten halako maparik edo gps-rik gabe?

Kostatik gertu zebiltzanak lehorreko erreferentziak erabiltzen zituzten –oraindik batzuek hala egiten dute–. Esate baterako, baselizak, baserriak, tontorrak, puntak... Nola egiten zuten? Azken finean, plano batean puntu bat kokatzeko bi lerro behar ditugu. Adibidez, Zumaian bada arrantza toki ezagun bat, Iruermita izena duena. Puntu hori nola zehazten dute? Alde batetik, lerroan jartzen dituzte Zumaia hiru baseliza: San Lorente, Arritokieta eta San Telmo. Lerro hori lehorretik itsasora dator, hegoaldeetik iparraldera. Bestetik, ekialdeetik mendebaldera datorren beste lerro bat osatzen dute, Orioko Mendizorrotz eta Getariako San Anton lerrokatuta. Bi lerro horiek gurutzatzen diren lekuan dago Iruermita.



ATEZ ATE**HERRITARREK
HARTU DUTE HITZA**

Herritarrek atez ateko bilketa sistemaren inguruan izan ditzaketen zalantzak argitzeko eta iritziak entzuteko helburuarekin antolatu ditu Udalak hainbat bilera ireki. Lehenengo bost bileretako galdera-erantzunen laburpena duzue hau.

TESTUA: GORKA ZABALETA



Atez atekoak herritarren artean jakin-mina piztu duenik ezin da ukatu. Zumaiar askok hartu dute parte Alondegian antolatutako bileretan, galderak eginez, eta kontrako “gehienak” zein aldeko iritziak plazaratuz. Eztabaida ere piztu da zenbait unetan. Udalaren partetik, Iñaki Agirrezabalaga alkateak eta Aitor Leiza Ingurumen zinegotziak erantzun dituzte herritarrek egindako galderak.

Atez ateko sistemarekin ez al dugu egingo 35 urte atzera?

Inondik inora ere ez. Orain dela 35 urte edozein lekutara botatzen zen zaborra; baita itsasora ere. Gainera, garai hartan ez zen ia ezer birziklatzen. Atez ateko sistemarekin zaborrak era eraginkorrean birziklatzeko modua dugu. Atzera egin beharrean, aurrera egingo dugu, osasunean eta ingurumenarekin dugun errespetuan.

Zergatik ez da sistema misto bat erabiltzen, Itsasondon egiten den bezala?

Sistema mistoetan birziklapen tasak baxuagoak dira, gaizki egiteko aukera duzulako. Horrelako sistemekin, orain gaizki egiten duenak ondoren ere gaizki egiten jarraitzeko aukera izango luke.

Orain arte gaizki egiten duenak atez atekoarekin ere gaizki egiten jarraituko du.

Gaur egun gaizki egiten duenak ikasi beste aukerarik ez du izango. Atez atekoa jarri aurretik ikastaroak egingo dira, informazioa eta bilketaren inguruko materiala ere emango da. Horretaz gain, behin jartzen denean, kezkak eta dudak argitzeko bulego bat eta telefono bat ere jarriko dira.

Herrian bada aspalditik gaikako bilketa egin eta birziklatzen duen jendea; egiten ez duen jende horregatik denok aldatu behar al dugu?

Gaur egun gaikako bilketa egiten duenarentzat aldaketa oso txikia izango da. Azken finean, zein egunetan zer atera behar den jakitea besterik ez da. Gaur egun birziklatzen ez duenak ikasi egin beharko du birziklatzen.

Zuek diozue bosgarren edukiontzian nahikoa dela bategaizki egitea ontzian bildutako guztiak ezertarako balio ez izateko. Atez atekoan, nola kontrolatuko da ondo egiten dela? Nire hondakinak erregistratuko al dituzte?

Zabor biltzaileak zure ontzia gainbegiratu du, azaletik, ondo saikatu dagoela ziurtatzeko. Zaborra nahastuta dagoela ikusten bada, ez du ontzia jasoko. Ontziak kodigo bat duenez, deitu egiten zaio jabeari gaizki egin duela esateko eta nola egin behar duen azaltzeko. Bildu gabe gelditu diren hondakinekin zer egin ere esango zaio.

Gaizki egiten duenari isuna jarriko al zaio?

Udalaren helburua ez da isunak jartzen aritzea. Ikasketa prozesua izango da, eta helburua herritarrek heztea da. Hala ere, norbaitek nahita gaizki egiten duela ikusten bada, hari isuna jarriko zaio.

Atez ateko sistema zikina da, ez al dago beste sistemarik?

Atez atekoa, ongi eginez gero, ez da zikina. Gaur egun, edozein ordutan botatzen dugu zaborra. Atez atekoarekin, bost ordutan bilduko da dena. Beraz, ordu gehienetan ez da zaborrik ikusiko kaleetan.

A zer itxura izango duten gure kaleek! Erribera kalea dena zintzilikarioz eta zaborrez josita.

Zintzilikarioak non jarri auzotarrekin adostuko da, eta betiere saiatuko gara sistemarik txukunena aurkitzen. Dena den, gaur egungo edukiontziekin kritika berbera egin genezake.

Etxeetan ez dugu lekurik ontziak sartzeko.

Atez atekoa egiteko bi ontzi baino ez dira behar. Hondakin organikoak soilik jaisten dira ontzian. Ontzi horiek ez dira handiak, eta etxeko edozein txokotan kabitzen dira.

Gaur egun organikoa birziklatzen dugunoi poltsa berezi batzuk ematen zaizkigu, erosoago eta garbiago izan dadin. Atez atekoarekin zergatik ezingo dira poltsa horiek erabili? Poltsarik gabe, askoz zikinagoa da guretzat.

Arazoi nagusia da konpostatzeko garaian poltsa horiek arazoak sortzen dituztela. Makinetan trabatzen dira eta lanak oztopatzen dituzte. Poltsen ordez, ontziaren hondoan sukaldako papera jartzea gomendatzen da.

Eta egunen batean normalean baino hondakin gehiago sortzen badugu, etxean gorde behar al dugu?

Ez. Horrelako kasuetarako, eta ordutegia bete ezin dugunerako, larrialdi guneak jarriko dira. Leku horiek giltza bat izango dute, eta momentu puntualetan erabiltzeko aukera izango da.

Herri kontsulta

Herritarrei galdetzea nahi dugu. Herriak agindu behar du, eta zuek inposatzen ari zarete. Hori al da demokrazia? Errauskailuarentzat galdeteka eskatu genuen; atez atekoarentzat berdin.

Kotxea gidatzen dugunean alkohola edan daitekeen edo ez galdetzen ez den bezala, hau ere uste dugu ez dela galdetu behar. Ezin dugu galdetu ondo edo gaizki egin nahi dugun. Gaizki egitea ez da aukera bat.

Zergatik ez da gaur egungo sistema benetan bultzatzen? Zergatik ez dira kontzientziazio kanpainak egiten? 2007an % 12 birziklatzen zen, eta 2010ean % 33 inguru. Urte gutxian asko igo da birziklapen maila. Gehiago lor daiteke sistema aldatu gabe.

Zumaian bosgarren edukiontzia dagoenetik urtero egiten dira edukiontzi erabiltzen ikasteko ikastaroak. Hala ere, Zumaian 500 familia baino gutxiagok erabiltzen dute. Beraz, ikus daiteke orain arteko kontzientziazio kanpainekin ezer gutxi lortu dela. Gainera, arazoari epe motzean eman behar zaio irtenbidea egoera ez delako jasagarria. Ez ditugu beste 10 urte kontzientziazio lana egiteko.

Azpiegiturak

Gaika bildutako guztia birziklatzeko azpiegitura prest al dago?

Egia da azpiegitura nahikorik ez dagoela gaur egun. 2002an egindako plan batek dio 2009rako konposta egiteko hiru gune

Udalak bileretan emandako zenbait datu

- ✓ Gipuzkoar bakoitzak urtean 400 kilo hondakin sortzen ditu.
- ✓ Zumaiarrok, 2010ean, 4,2 milioi kilo hondakin sortu genuen. Kopuru horretatik, milioi bat baino ez zen birziklatu. 3,2 milioi kilo zabortegira joan ziren.
- ✓ Hondakinak nahasita biltzen dituen edukiontzian (berde iluna), % 41 organikoa da, % 18 ontzi arinak, % 13 papera, % 3 beira... Birziklagarriak denak.
- ✓ Zabortegira eramaten den tona bakoitzeko 140 euro ordaintzen ditugu. Organikoa kospostatzera eramatea 70 euro balio du tonako.
- ✓ Hondakinen arazoari aurre egiteko bi bide daude: errauskailua edo gaikako bilketa (atez ate).
- ✓ Errauskailua eraikitzeko, 500 milioi euro behar dira; kalteak eragiten ditu osasunean eta ingurumenean; zabortegi berezi bat behar da erraustu ondoren gelditzen diren hondakinentzat.
- ✓ Europako legediak dio ahal den gehiena birziklatu behar dela, berrerrabiltzea bultzatu behar dela.
- ✓ Hondakinen % 90 birziklagarriak dira. Atez ateko sistemarekin demostratu da % 80 birziklatzera iritsi gaitzkeela; bosgarren edukiontziarekin % 35era baino ez gara iritsi.
- ✓ Usurbilen, 2008an, % 23 birziklatzen zuten edukiontzien sistemarekin; 2009an, % 82 atez atekoarekin.
- ✓ Mundu osoan dago zabalduta atez ateko bilketa sistema: Ameriketako Estatu Batuetan (San Franzisko, Seattle...), Italian, Australiar, Kanadan, Katalunian...

prestatuko zirela, eta 2012rako gune horiek zabaldu egingo zirela. 2012an gaude eta gune bakarra dago: Lapatxekoa. Beraz, falta diren horiek egin beharko dira.

Europako herrialde askotan errauskailuak daude; beraz, ez da hain txarra izango. Hemen zergatik ez?

Munduko hainbat herrialdetan atez ateko sistema ezarrita dago. Hori ere ez da, bada, hain txarra izango, ezta? Gainera, Europako legediaren arabera, hondakinen kudeaketa plana egiterakoan errausketak azken aukera izan behar du, ez delako osasungarria. Eta horixe lortu nahi da.

Errauskailuek energia sortzen dute, zaborrari irtenbidea emateaz gain. Beraz, zergatik diozue hain txarra dela?

Bai, energia sortzen du, baina natur baliabideen kontura. Hau da, errauskailuak energia sortzeko zaborra behar du, eta horiek errez gero, berriro natur baliabideak ustiatzera garamatza. Ereduek lineal horri buelta ematen zaio atez atekoarekin.

Zer egingo da birziklatu ezin den % 20arekin?

Modu batera edo bestera, atez atekoarekin edo errauskailuarekin, beti geldituko da zati bat zabortegira eraman beharko dena. Ahalik eta gutxien izatea nahi dugu guk.

URBERU sagardotegia

Elorriaga auzoa - ITZIAR
Tel. 943 199 237

Etxeko
espezialitateak:
haragia eta arrainak
parrillan.



L.H. / F.P. - Erdi mailako ziklo Berria
INSTALAZIOA ETA ALTZARI HORNIKUNTZA

AURREMATRIKULAZIOA
maiatzaren 28tik ekainaren 8ra

**HIRU URTETAN ERDI MAILAKO
BI TITULAZIO LOR DITZAKEZU**

- 1.- Instalazioa eta altzari hornikuntza
- 2.- Arotzeria eta altzarigintza

Egurrak etorkizunari!

Altzariak fabrikatu, muntaia egin eta instalatu
WWW.UROLA.ORG

ATE IREKIAK: 2012-05-19 (11:00etan) eta 24 (18:30ean)

AURREMATRIKULA: 2012-05-28tik / 2012-06-08ra

Matrikula: 2012-07-05etik / 2012-07-11ra

Altamira auzoa z/g 20720 AZKOITIA TEL. 943 852174



“GEZURRETAN OINARRITUTAKO DISKURTSOA DA ATEZ ATEKOAREN ALDEKOA”

Gaikako edukiontzien eta errauskailuaren alde, eta atez ateko sistemaren aurka mintzatu da Carlos Ormazabal diputatu ohia Alondegian 200 bat lagunen aurrean –jende asko zutik– emandako hitzaldian. Bestalde, atez atekoaren aurkako plataforma baten sorrera iragarri zuen EAJ-PNVko zinegotzi Montse Aranak.

Garapen iraunkorrerako diputatu izan zen Carlos Ormazabal (EAJ) aurreko legegaldian, Gipuzkoako Foru Aldundian. Bere ardura izan zen hondakinak kudeatzeko sistema bat ezartzea eta, beraz, gaiari buruzko ezagutza sakona du. Atez ateko sistemaren aurka egin zuen Alondegian emandako hitzaldian, “gezurretan oinarritzen delako”. “Hasteko, kontzeptuak nahasten dituzte; gauza bat da hondakinak gaika biltzea eta bestea hondakin horiek birziklatzea. Pare pare jartzen dituzte bilketa sistema bat –atez ate– eta zaborra tratatzeko sistema bat –errauskailua–. Eta hori manipulazio hutsa da”. Ormazabalek azaldu duenez, Europako leku batzuetan hondakinak atez ateko sistemarekin biltzen dituzte eta birziklatu ezin dena errauskailura eramaten dute, “Flandrian, esate baterako, atez atekoa egiten dute eta hamar errauskailu dauzkate”. “Azken finean, hondakinak atez ate edo edukiontziekin bildu, beti geldituko da birziklatu ezin den zati bat, eta horrentzat bi irtenbide baino ez daude: erre edo zabortegietan bildu”.

Birziklatu ezin den zaborrarentzat errauskailuaren sistema defendatzen du Carlos Ormazabalek, zabortegien aurrean. “Zabortegiek arazo asko sortzen dituzte. Gainera, Gipuzkoan dauzkagunak gainezka daude. Horren aurrean, errauskailu modernoekin energia lor daiteke birziklaezina den zaborrarekin, garbiak dira, eta ez dute osasunean inolako kalterik sortzen”. Hori defendatzeko, Europako hainbat hiritan dauden errauskailuen argazkiak erakutsi ditu: Parisen, Monakon, Vienan, Lillen, Kopenhagen... “Denak hirietan daude, etxebizitzetaz inguratuta. Errauskailuen eztabaida aspaldi gainditu zuten European”.

Atez ateko emaitzak, zalantzan

Gaur egun atez ateko bilketa sistema duten Gipuzkoako herrietako datuak ere zalantzan jartzen ditu Ormazabalek. “Esanguratsuen da herri horietan zaborraren % 40 ‘desagertu’ egin dela. Hau da, atez atekoaren aurreko datuak eta gaur egungoak alderatuta, herri horietan % 40 zabor gutxiago sortzen dela ondoriozta daiteke. Hori ezinezkoa da. Kontua da zabor hori alboko herrietara eramaten duela jendeak. Horrela bai, horrela ulertzen da gaika bildutako hondakinaren ehuneko % 80a igotzea. Baina kopuru totalak ikusita, ki-loak konparatuta, ez dago alde handirik”.



Atez ateko bilketa sistema edukiontziena baino garestiagoa da, Ormazabalek emandako datuen arabera –Hernanin 600.000 euro garestiago omen da–, “eta errauskailuak ez ditu mila milioi euro balio: 390 milioi euroko aurrekontua du, eta horietatik 195 milioi Europak jartzeko akordioa lortu zen”.

Ormabazalen iritziz, edukiontzietan oinarritutako sistema da hondakinak gaika biltzeko egokiena, “borondatezkoa delako, garbia, merkea eta estetiko, eta ez duelako intimitatea urratzen”. Gainera, azken hamar urteotan Gipuzkoan aurrerapauso handia egin dela azpimarratu du, birziklatze tasa % 17tik % 41era igo dela. “Inposaketaren aurrean, sentsibilizazioaren eta kontzientziazioaren” bideak proposatzen ditu datu ho-beak lortzeko. “Edukiontzien sisteman, gainera, badaude esperientzia berri-tzaileak, Lazkaokoa, esate baterako. Han edukiontzia erabiltzen dira, baina txartel digital batekin. Horrela, norbaitek ez baditu hondakinak ondo sailkatzen, erregistratuta gelditzen da”.

Plataforma bat sortzear

Hitzaldiaren amaieran, galderen txandan, atez atekoaren kontrako sinadurak biltzera animatu zituen herritarrek. “Zarautzen 7.000 sinadura bildu zituzten. Zumaian erronka litzateke Udal Gobernuak lortutako boto kopurua gainditzea”. Bide horretan, EAJko zinegotzi Montse Aranak jakinarazi zuen atez atekoaren kontrako plataforma bat sortzear dela: “Jadanik bilera batzuk egin dituzte hainbat herritarrek, EAJk ere parte hartu du, eta laster izango da plataforma horren berri”. ■

SENTITU, ASKATU, DANTZATU



Astindu dantza taldeak lehen urtea bete du. lazko martxoan jaio zen, uztailean aurkeztu zen herritarren aurrean eta urtebete geroago pauso sendoak ematen jarraitzen du Zumaiako dantzaren elkargune bihurtzeko. Hilabete honetan izango den “Maiatza dantzan” ekimena da horren adibidea.

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Cabaret pelikulako musika entzuten da Torreberriko bigarren solairuan. “Maiatza dantzan” ekimenaren baitan aurkeztuko duten *Broadway* ikuskizuneko koreografia entseatzen dabilta Astindu dantza taldeko hogeitun lagun. Ispiluari begira, Liza Minnelli balira bezala mugitzen dituzte gorputzak. Pauso bat aurrera, beste bat ezkerera, gora besoak. Bob Fosse handiaren lanak betetzen dituen Isaak Aranberrik geratzeko eskatu du. Zerbait gustatu ez, eta berriro hasteko eskatu du. Horrela behin eta berri. Gogorra da dantzaren mundua.

Eferbeszentzia puntu bat bizi du dantzak Zumaian. “Orain dela urte gutxi batzuk ez zegoen ezer ere. Bere garaian, Beti Gazte taldea izan zen, baina hura ere desegin zen eta urte dezentetan ez zen dantza egiterik izan Zumaian”, gogoan du Astinduko kide den Jone Osak. Uxua Gainza eta bera izan ditugu hizlari kontakizun honetan. Lau urte hauetatik hona, baina, gehitu egin dira dantzaren inguruan mugitzen diren eskolak, bai publikoak, bai pribatuak. “Lehen ikastetxeetan ematen ziren dantza ikasketak. Gaur egun Musika Eskola bihurtu da horren arduradun”, aipatu du Uxuak. Musika Eskolan ematen diren ikasgaiez gain, balleta, freedance-a, capoeira, zumba edo dantza afrikarra egin daitezke gaur egun Zumaian.

Herrian dauden talde edo eskola hauek guztiak biltzeko asmoarekin sortu zen Astindu dantza taldea. “Herriko dantzak indarra har zezan. Baita dantza kalera atera eta herriari ezagutarazteko ere. Bestela, ez gara konturatzen herrian bertan zer dugun”, dio Jonek. “Helburu nagusia da dantza bultzatzea eta dantzaren kulturak Zumaian espazio bat izatea”, gaineratu du Uxuak.

Taldea iazko martxoan jaio zen, baina dantzaren inguruan mugituko zen elkarte bat sortzeko ideia aspalditik zuten

“Astinduren helburu nagusia da dantza bultzatzea eta dantzak Zumaian espazio bat izatea”

buruan. “Musika Eskolaren pleru berriak idazteketan zirenean Musika Patronatuko bileretan izan nintzen, San Pedro abesbatzaren ordezkari. Gure ideia zen dantza eskaintza publikoa handitzea, eta euskal dantzetatik harago joatea. Musikaren hezkuntzan espezialitate edo instrumentu desberdinak dauden bezala, dantzan ere hala izatea nahi genuen. Dantzaren oinarriak diren euskal dantza klasikoa, dan-

tza sortzailea, balleta eta dantza garaikidea eskaintzea nahi genuen, hain zuzen ere”, azaldu du Uxuak.

Proposamena onartu egin zuten, eta gaur egun lau dantza estilo horiek eskaintzen dira Musika Eskolan. Horietaz gain, hiruhilabeteko dantza ikastaro trinkoak ere ematen dira. Adibide bezala, artikulu hau idazterako orduan, dantza afrikarren ikastaroa ari ziren ematen Torreberri.

Lehen helburua lortuta, bigarren pausoa elkarte bera sortzea izan zela diote. **(Uxua):** “Musika Eskolako pleruak onartu zirenean, aurrera egitea erabaki genuen eta elkarte sortzea. Bestela, gizabanako batzuk besterik ez ginen izango”. **(Jone):** “Miriam Romatet kultura teknikariak eman zigun ideia. Ikusi zuen ideiak genituela, eta esan zigun horretarako hobe genuela elkarte bat sortzea”. **(Uxua):** “Juridikoki ere serioago hartzen zaituzte horrela. Gauzak eskatzeko orduan indar handiagoa ematen dizu”.



► 'CABARET' ZUMAIAN

Maiatza Dantzan ekimenaren baitan 'Broadway' ikuskizuna aurkeztuko du Astinduk. Azken asteetan gogor aritu dira koreografiak entseatzan.

BEDUA
ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industrigunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

Braky's
Okindegia Kafetegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700

EGOKI

Erlorju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787

EKAIN
SAGARDO EKIDLOKOA

www.ekainsagardoa.com • Tel.: 943 148 033

Ekin
Elektronikak, S.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943 143 097
ekin@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

DIGITAL+

SESMA
ENTRENATZAILE PERTSONALA

Kalitatezko Jarduera Fisikoa eta Kirola

667 750 206
www.entrenadorpersonalesma.com
josebasesma14@gmail.com

ERNTO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045

ERROTA
OPILOKINDEGIA
SANTIXO AUZOA, 32
20750 ZUMAIA
TEL: 943860000
943860612
FAX: 943860977
erota@erota-okindegia.com

ERTZ INFORMATIKA

Portatilak
konpontzeko
zerbitzu berria

Eskatu surretan
konpromisorik gabe.
DOAN

Behoko plaza tel./faxa: 943 143 395

FARMA ZUMAIA
Parafarmazia • Belar-denda
Tel. 943 865 323

PRODUKTUAK

- Urne eta haurrentzat, dietetikoak, kosmetikoak, hanka eta eskuen zaintzarako...

ZERBITZU BEREZIAK

- Dieteta, Naturapala, Indologia, Flores de Bach, Masajeak (Terapeutikoak, Kiroletzako, Lesioetarako, Estresaren, Arduratasunaren, Buruko minen, Zirkulazio arazoan... kontrakoak), Akupuntura, homatekin eta homatek gabe

BASADI KALEA, 1 - BEHEA - ZUMAIA

GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA

Era gutrietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide pasealekua, 5. pabilioa tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617

Galdona
burdindegia

Mondano manna, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

GANBARA
Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057

Garoa
kafetegia

Txomin Agirre kaia Tel. 943862181



“Hasieran bazkide gehienak euskal dantzetako ikasleak ziren, baina denborarekin beste estiloetara ere zabaldu da”



Taldea sortu eta berehala, bilera irekiak egin zituzten Zumaiaiko dantza munduan mugitzen ziren eragileekin. **(Jone):** “Gure proposamena azaldu genien eta ondo hartu zuten. Denak ez, baina gehienak bazkide egin dira”. Gaur egun, 45 bazkide ditu Astinduk, “30 helduak eta 15 haurrak. Hasieran, gehienak euskal dantzetako ikasleak ziren, gu ere han aritzen garelako, baina denborarekin beste estiloetara ere zabaldu da”. Urtean zehar antolatutako dantza saio batzuk bazkideentzat bakarrik izan dira; orain pare bat hilabete Bandarekin batera eskainitako ikuskizuna edo maiatz honetan egingo den emanaldia, adibidez. **(Jone):** “Horrekin jende gehiago animatu da bazkide egitera”. **(Uxua):** “Proiektu bat aurkezten dugunean eta horretarako irakasle bat propio ekarri behar denean, ko-reografia bat entseatu eta hainbat saio egin behar direnean, seriotasuna eskatzen dugu. Bazkide izateak badu beste abantaila bat, eta da deskontua izaten duela ikastaro batzuetan”.

Ohorezko lehen bazkidea ere badu Astinduk: Lucia Lacarra. “Ez zen erraza izan harekin harremanetan jartzea. Azkenean, Facebook bidez lortu genuen. Gure asmoa zen, gutxienez, elkartaren berri ematea”.

Euskal dantzetatik harago doan elkartea dela berresten

dute. **(Jone):** “Batziek pentsa dezakete Astindu euskal dantzei lotutako elkartea dela, gu mundu horretan mugitzen garelako, baina askoz ere zabalagoa da”. **(Uxua):** “Euskal dantzetatik harago badago mundua! Euskal dantza purua ia ez da egiten. Guk Isaakekin egiten duguna fusioa da: euskal dantzetatik abiatuta beste musika batzuk, edo dantza garai-kideko edo jazzeko mugimenduak sartzen ditugu. Dantzari bezala ere asko gustatzen zaigu berritze hori. Bestela, egunero fandangoak edo arin-arinak dantzatzen egotea... Betiere nahiago dugu zerbait berria probatzea”.

Dantzak Zumaian indarra hartu du eta badu bere alde egingo duen elkartea ere. Baina, zein dira bere beharrak? **(Uxua):** “Ekitaldiak ikusteko eszenatokia egotea beharrezkoa da, saioa ondo ikusteko eta curia egiten duenean babesteko. Ikusi besterik ez dago zer gertatu zen San Telmo jaietan. Patronatuan sartu gara eta laguntzak jasoko ditugu irakasleen soldata edota jantziak ordaintzeko. Hori bai, esan behar da entseguetarako Torreberrin dugun lekua zoragarria dela. Lehen Komentuan egiten genituen entseguak eta bigarren urtea da hemen gaudela”. **(Jone):** “Hurrengo pausoa Torreberriko lehen solairua eskuratzea izango da! Eskaera



Torreberitik Broadwayera

Lehen urtebete honetan zenbait ekitalditan hartu dute parte Astinduko kideek, baita saio batzuk antolatu ere. Nava Jeevan elkarreak maiatzean aurkeztu zuen dantza jaialdian eman zuen Astinduk lehen aldiz bere berri, baina aurkezpen ofiziala iazko uztailean egin zuen, Kofradian egin zen dantza saio batean. Euskal Jai egunera-ko fandango eta arin-arinen ikastaroa ere eskaini zuten.

Aurten, martxoan, saio berezia eskaini zuten Musika Bandak eta Astinduk elkarlanean. “Bandak jakin zuen elkarrea sortu zela eta zerbait batera egitea proposatu zigun: beraiek musika jarriko zuten eta guk dantza. Presaka muntatu behar izan genuen. Marijo Zubia inguratu genuen aretoko dantzak irakasteko. Valentina Palmero venezuelarra ere erakarri genuen; arropa konpontzeko denda bat du Etxezarreta kalean, eta hark jantzi guztiak egin zizkigun”.

Atsedetik gabe, “Maiatza dantzan” jaialdia prestatzen ari dira gaur egun, “maiatza nazioarte mailan dantzaren hilabetea delako”. Lau saio izango dira guztira. Maiatzaren 18an, euskal dantzak izango dira Musika Eskolako dantzarien eskutik. Maiatzaren 19an, zumba saioa ekarriko dute Jonhsonek eta Josunek. Hilaren 27an, berriz, capoeira eta dantza afrikarren ikuskizuna izango da Senzala taldeko eta Musika Eskolako ikasleen eskutik. Saio hauek guztiak 19:30ean hasiko dira.

Aurtengo ekitaldi nagusia, baina, Astinduko kideek beraiek eskainiko duten *Broadway* ikuskizuna izango da. Saioa maiatzaren 19an izango da, 22:30ean hasita, eta *Cabaret* edo *Chicago* bezalako musikal ezagunetako hiru koreografia prestatu dituzte. Amaia plazatik abiatuta, kalejira egingo dute Beheko plazara. Bidean, koreografia batzuk dantzatuko dituzte, eta behin plazan, ikuskizun osoa jarraitzeko aukera izango da. Sorpresak ere izango direla agintzen dute.





◀ ▼ DANTZA ESTILOAK

Urte hauetan gehitu egin dira Zumaian eskaintzen diren dantza ikastarak: freedance, afrikarra, baleta, zumba...



badago. Solairu bakarra dugu orain eta ordutegia beteta dagoela esan daiteke”.

Ekitaldiak antolatu dituzue herriko elkarrekin elkarlanean. Beste herrietako elkarrekin harremanik ba al duzue? (Jone):

“Momentuz ez. Ez dakigu gurea bezalakorik badagoen beste herrietan. Esan daiteke gauzak eramateko modu berri bat dela gurea”. **(Uxua):** “Beste herrietakoak dantza taldeak dira elkarrekin baino gehiago. Getarian konpartsa bat dute, Zarautzen euskal plaza dantzak sustatzen dituen taldea, etab. Oraingoz gure gauzak egiten goaz eta zeinek daki zer gerta daitekeen”.

Eta zein dituzue etorkizun hurbilerako dituzuen asmoak? (Uxua): “Sanpedrotan, Bandaren edo trikitilarien laguntzarekin, euskal plazako dantza saio bat egin nahi dugu.

“Jendeak ez du plazan dantza egiten, eta horretara animatu nahi ditugu”

Baina ez fandangoak eta arinarinak. Ez. Iparraldean egiten diren plazako dantzaren antza gehiago izango du”. **(Jone):** “Jendeak ez du plazan dantza egiten, eta horretara animatu nahi ditugu”. **(Uxua):** “Uztaillean beste formazio ikastaro bat egingo dugu. Irailean, matrikulazio garaian, dantza saio bat izango da, eskola bakoitzak eskaintzen duenaren berri eman dezan. Eta urte amaiera baino lehen beste zerbaitekin egingo dugu; hitzaldi bat agian”.

Urteak daramatzazue biok dantza munduan. Zer da



zuentzako dantza? (Jone): “Bizitza guztia ari naiz dantzan. Niretzat bizitza da. Pentsa, astebete nago dantzarik egin gabe eta falta sumatzen dut! Deskonektatzeko balio du. Egunerokotasunean oso zurrin gaude; derrigortuta gaude modu batera egotera. Dantzan, berriz, ni naiz, eta ez zait inporta inor begira dudana edo ez. Disfrutatu egiten dut”. **(Uxua):** “Kirola baino gehiago da. Artea, espresioa edota emozioa era integratzen jasotzen ditu. Zeure buruarekin egoteko balio du, sentitzeko. Talde harremanean ere pila bat laguntzen du. Guri kristoren bizipoza ematen digu”. ■





GOIKO TABERNA
Erribera, 9 tel. 943 861 391


Ikastegi homologatua

Golden Gate
Institute
hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943 865 020
goldengateinsti@telefonica.net

Gure Txokoa
taberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaiak
Tel.: 943 86 09 70

English School

Harvest

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

del CAPI

Ibaigain
inmobiliaria

Ricardo Azkue
API 399

Txomin Agirre 4, behea
tel. 943 862 651
faxa 943862748

rijazcue@euskalnet.net

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

IRUITZ



Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z.g. tel. 943 143 058

Itzurun, S.L.
Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armairu enpotaatuak...

Itzurun Zuhaitzbidia, 2 behea
Tel. / Fax: 943 86 15 66

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Baso, auzategia, 10 tel. 943 861 853

ORRAZTEGI ZUMAI A



943 862 083

Kala

Pintxoak eta otartekoak



Txomin Agirre kala, 8

KABI Pasaia Eteazarreta, 15
943 117 427

TABERNA



Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari




Upela plaza, 6
tel. 943 862 517

KANTOURI
TABERNA



Pintxoak • Plater Konbinatuak • Kazolatxoak

Kantauri plaza, 4 behea • Tel. 943 575 840



Margotzea du gustuko Xabier Iruretak; egurra eta harria lantzea Manuel Mari Garatek. Aitzakia ederra biak elkartu eta hartaz eta honetaz berriketan jartzeko. Horretan ere artistak baitira biak.

TESTUA: GORKA ZABALETA
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

HERRIKO BI ARTISTA

Bere lokalean aurkitu dugu Xabier Irureta (Zumaia, 1936), mantala jantzita eta pintzela eskuan. Txori bat ari da margotzen. Oso aurreratuta dauka lana. “Hemen pasatzen ditiat arratsaldeak. Bostak aldera etorri eta zortzi eta erdiak arte”. Ez da denbora pasa hutsera joaten: lokaleko hormak koadroz josita dauzka. Zumaia ezagunen erretratuak, herriko txokoak... “Duela hamar urte hartu nian erretiroa eta orduan erabaki nian umetako zaletasuna berreskuratzea”. Hilean koadro bat egiten omen du. “Ni ez nauk presaka ibiltzen. Zertarako? Nire martxan”. Bere martxan, 80tik gora margolan ditu eginak, eta haietako asko erakutsiko ditu maiatzaren 10etik aurrera Alondegian.

Xabierren lokaleko atea jo du norbaitek. Manuel Mari Garate (Zumaia, 1937) da. Xabierren lokalera sartzen den lehen aldia da. Hormak koadroz beteta ikusi ditu:

–Hau duk hau! Hau nire aldean profesionala duk! Zer produkzio klasetan hasi haiz hi?! Harrituta laga nauk....

–Ibili egiten gaituk eta...

–Ibili? Kalean bakarrik ez haiz ibiltzen hi, eh!

–Ez, ez, nik titulu asko zeuzkat kalean, titulu asko... Baina igual duk, bakoitza den modukoa duk eta.

Atentzio handiz begiratzen ditu Manuel Marik Xabierren margolanak. Iñaki Osa Goikoetxearen erretratu aurkitu du:

–Honen irudia bazeukaat neuk ere eginda. Gero erakutsiko diat. Eta beste hau Donibane Garazi duk. Irudi ezaguna duk hau. Zubi gainetik amuarrainak ikusten dituk. Hirearen aldean, nirea asto lana duk...

–Zer ikusi zeukak ba, hi? Hemen ahal duenak ahal duena eginez gero, ez zegok batere arazorik.

–Ahal duenak ahal duena, eta gustukoa...

–Hik egurra lantzeko hori hartu huen bezala, ni beste honetara...Gure garaian, 13 urterekin ba al zegoen, ba, Arte Ederrak ikasteko aukerarik?

–Bai, berehala... Nik 40tik gora urterekin egin nian egurra lantzeko ikastaro bat Donostian, Katalina Erausok antolatuta. Urrian hasi eta maiatza arteko ikastaroa, astean behin joaten ninduan.

–Guk 13 urterekin gauza bakarra izaten genian zintzilik: laneko buzoa. Hik badakik ondo...

–Eta zikin-zikina gainera... Buzoa kendu gabe joaten gintuan etxera bazkaltzera!

Poltsikotik argazki kamera atera du Manuel Marik:

–Barkatuko didak, Xabier, baina hire margolanei argazkiak atera nahi zieat.

“Arriketa”, Manuel Mariren txokoa

Egurra eta harria lantzea du afizio Manuel Marik. Kanposantutik gora, Andre Mariko ur biltegia baino lehen, hegoaldera ematen duen maldan dauka bere txokoa: Arriketa. “Lekuaren izena duk. Arritokieta edo, gaur egun esaten den bezala, Arri-dokieta, hitzaren laburdura”. Xabier Iruretaren lokaletik hara abiatu gara, Manuel Mari txofer. Antzinako belaontzi baten irudiak apaintzen du atariko burdinazko hesia. “Begira ezak, Xabier, hemen zer dagoen”. Lehen txakolina egiten zuten etxean, eta dolarea dauka gordeta Manuel Marik:

–“Txakolina dolare honekin egiten genian. Etxe azpiko bodegan ezkutuan zegoan, eta pentsatu nian atera eta aterpe moduko hau egitea”.



–“Zulotxo honetan makila sartu eta eragiten zitzazioan”.

Manuel Marik burdinazko tutua ateratu du. Xabierrek aipatutako zuloan sartu eta han hasi dira biak, dolareari eragiten:

–Dagoeneko gogortuta zegoek hau, Manuel Mari...

Nabari da bere txoko kuttuna duela Arriketa. Dolarea bezala, garai bateko beste hamaika bitxikeria ditu gordeta. “Horko borda biribil moduko horri *ipotxen borda* deitzen zioagu. Bilobentzat egin nian, galtzada-harriekin”. Aterpeak babestuta, mahai eder bat du, gaurkoan trastez betea. “Lehenago jakin izan banu hona etorriko ginela hau dena txukunduta izango nikek”, kezatu da. “Ez, ez, gauzak diren bezala erakutsi behar dituk, Manuel Mari”, bota dio Xabierrek. Horman hainbat argazki eta irudi dauzka jarrita, Goikotorre jaiotetxekoa tartean. Eta hormaren erdian, zulo bat: “Mendiaren kontra horma egiten hasi nintzenean, arbola honek –artearenbarazu egiten zidaan. Baina gero pentsatu nian, horma aurrerago egin beharrean leiho moduko bat irekiko niola. Eta horrela zegoek, hormaren erdian libre”. Ordudanik, *Artepeko aterpea* da txoko hori.

Lehen dena mahatsondoa zen Arriketako malda; gaur egun, aleren bat edo beste mantendu du, baina arbolak dauzka landatuta. Gereziondoa, mizpira japoniarra, bertako mizpirak, artea... Azalpenekin batera, hasi zaigu bere lanak erakusten, egurrean zein harrian landutako tailak: antzinako ikurrak, harrizko euskal armarria, Zumaiako parrokia erliebean landuta... Eta harraldean aurkitutako forma berezidun adarrekin egindako eskulturak:

–Lehen esan diat, ba, neuk ere banuela Goikoetxeari egindako lan bat? Askotan, harraldera maoliotara joan eta itsasoak ekarritako adar bereziekin bueltatzen nauk etxera.

–Gero andreak esango dik, “Zer ekarri duk jateko, ezer ez?”.

–Haietako bati puntista baten tankera hartu nioan. Kaso modura intxaur azal bat jarri nioan. Txukundu, egurrezko oinarria jarri eta hemen eduki nian urte askotan. Gero, hasi

zuan Goikoetxea txapelketak irabazten eta pentsatu nian hari oparitzea. Trukean argazki bat eskatu nioan, eta hemen –horman– zeukaat jarrita.

–Nire aldean lan gutxi dauzkaala esan duk lehen, baina hemen denbora gutxian pilo ederra ari haiz erakusten!

Bistan da biok trebeak zaretela eskuekin, baina beste arte klase batzuk ere dominatzen dituzue: kantua, bertsoa...

–MANUEL MARI: Xabier amorratua duk kantuan. Ni ere bai.

–XABIER: Kantatu izan diagu, bai, makina bat, gure gazte denboran. Orain asko galduta zegoek. Herriko lehengo kanta zaharrak zeharo galtzen ari dituk. Eta ez landu ez delako, gazteek ez daukatelako ohitura hori.

–Lehen ezberdina zuan. Zurrutean eginez erraz kantatzen genian guk. Jai goizetan-eta, festa handi samarrak zirenean, koadrilak taberna bakarrean bildu eta denak elkarrekin hasten gintuan kantuan. Kantabriko tabernan, esate baterako. Taberna handia zuan hura.

–Eta hori lehen gaur egunean baino ordu gehiago pasatzen genituela lanean. Hamar ordu egiten genitian orduan,



Irureta: “Guk 13 urterekin gauza bakarra izaten genian zintzilik: laneko buzoa. Hik badakik ondo...”





Kresala
Taberna

Julio Beobide 3, tel. 943 019 869



kuttur
lentzeria

erribera kalea tel. 943117936



malaur

MAITE
ILEAPAINDEGIA



Amaiako plaza, 2 tel. 943 143 278



Maluta
jatetxea • taberna

oilasko erreka • kaxuelitak • ogitartekoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



Maxi
solarium

ileapaindegia
estetika

etxezarreta, 9 tel. 943 861 021 lasonet.com/maxi

- ✓ Eguneko menua.
- ✓ Asteburuetan txotx, sagardotegiko giroan.



Muniosoro, 54
OIKIA

tel.: 943147891

muniosoro
Taberna - Jatexea

Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza



MENDI - ONDO C.B.

Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 537 901



NOIA S.L.

TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etengabelko garabi zerbitzua

638 887 812 (Zumaia)
609 834 438 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indurstrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 631



ETXEGINTZA
OLIDEN
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.

Era guztietako berrikuntza eta igeltsotza lanak:
FATXADAK ETA TEILATUAK
Sukaldeak, bainugelak...

Tel. 647 040 156 / 686 911 257



OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149



badakik. Larunbat iluntzean irteten gintuan eta hamabietan pasatzen zuan sere-noa, eta denak etxera. Orduan ez zegoan goizeko seiak arte egoterik.

–Baina egunez ere asko kantatzen zuan. Jai eguerdian-eta...

–Asko aldatu duk gizartea orduetik. Lana egiten da euskara indartzeko eta ohi-turak bizirik mantentzeko, baina...

Zuek biok betidanik izan duzue euskararen alde lan egiteko grina. Ikastolaren sorreran parte hartu zenu-ten, Manuel Mari bertso kontuetan, Xabier orain Euskara Aholku Batzordean...

–M.: Bai, betidanik. Guk eskolan dena erdaraz ikasi genian, eta daukagun euskara etxean eta kalean hitz egindakoa duk.

–X.: Eskolan diktadura erabatekoa bizi genian. Nik zortea izan nian, Zarauzko Antonianotan irakasle euskaltzale batekin topo egin nuelako, Inaxio Olabeagarekin. Gero deserriratu egin zitean. Baina kaleko giroa euskalduna zuan umeen artean, gure gurasoak ahalegintzen zirelako guri euskaraz egiten eta erakusten. Lagunekin ere euskaraz egiten genian.

–Eta ume garaiak pasata, 15-16 urterekin, mendiko joerak hasten zituan, eta hori botereak ez zian ondo ikusten. Gaztea

Irureta: “Nik pentsatzen diat etorriko dela norbait artaldea bide bakarretik eramango gaituena”

gaur egun pertsegituta zegoak, eta orduan ere bai. Gaztea aurrera etortzen duk, eta hala behar dik.

–Bai, beti zegoan aitzakiaren bat pixka bat destakatzen zuena giltzapean sartzeko.

Biok zarete bertsozaleak. Manuel Mari, zeuk bertso eskola sortzen lan handia egin zenuen Joanito Dorronsororekin batera, eta santseskeko ohitura berreskuratzen ere bai.

–1951n egin nian santseska lehen aldiz. Ba al dakik zein-ekin? –galdetu dio Xabierri–. Maisu txikiarekin hasi gintuan, Arrangoletan.

–Curiel, Don Angel.

–Bai, eta laukotea osatu genian eskolako lagunek: Larretxeneko Karmelo eta Antonio, Joxe Mari Aristi eta lauok. Santa Ageda bezpera igandean tokatu zuan. Ez zekiat zeinen ideia izan zen, baina Azpeitira joango ginela kantatzera. Ez zekiat blusak eta nondik atera genituen. Urolako trenean joan eta taberna eta soziedadeetan kantatu genian. Goiza han pasa genian. Berriz Urola hartu eta Zumaia, larretxetarrenean bazkaldu eta arratsaldean Zumaian kantuan egiteko asmotan. Sartu zian denboralea eta ez zegoan irteterik. Azpeitian bildu-

takoaren partilla egin genian, eta bakoitzak bosna duro.

–Garai hartan ez zuan txarra!

–Gero, Otto Holken hasi ninduan lanean, eta hango lanak bukatutakoan joaten gintuan Xarrendo aldera-eta, ilunabarrean. Baina hori pare bat urtean. Gero utzi egin genioan. Eta berriro etorri zuan ikastolarekin batera. Eta gero, asteburuan egokitzen zenean, hasi gintuan baserrietara ateratzen. Bertso Eskolak hartu zian, azkenik, erreleboa.

–Zenbat jende zegok orain Bertso Eskolan?

–Bi edo hiru talde bazeudek. Baina Joanito eta biok pixka bat lagata zeukeagu.

Bai, baina zuek jarri zenuten Bertso Eskola mar-txan.

Bertso Eskola hasi zen Joanito hasi zelako ikastolan umeei doinuak eta bertso zaharrak erakusten. 1981ean egin zuan eskolarteko lehen bertsolari txapelketa. Joanitok ordu-rako mutiko batzuk bazeuzkaan, tartean gure seme Josu. Ni lehengo bertso zaharrekin eta asko ibiltzen ninduan, liburuxkak ere banitian. Ba, sekulako inpresioa egin zidaan semea etxera etorri eta nik nekizkian bertso zahar haiek kantatzen hasi zenean, Joanitok erakutsita. Orduan hasi ninduan Joanitori laguntzen. Harrezkero ez diagu laga. Gehiago edo gutxiago, beti elkarrekin.



Xabier, zeu kiroletan jo eta su. 52 urterekin jokatu omen zenuen azken txapelketa Zarauzko plaierotan...

–M.: Bai, eta pilotan ere jokatzeko zian honek, Joxe Zabalarekin.

–X.: Bai, urtero eibartarrekin egiten genian halako anaikidetza festa. Pilota partida jokatzeko genian frontoian eta ondoren Inda Mendi soziedadara joaten gintuan. Marmitakoa eta atuna tipularekin jaten genian. 1970eko hamarkadan izan zuan hura.

–Frontoia bete egiten zuan.

–Sarrera ez genian kobratzen, baina txapela pasa bai. Dokumentu bat bazeukat gordeta, non jartzen duen 37.000 pezeta eraman genituela Mojaxarretara, bildutakoa haientzat izaten zen-eta.

Eta plaierotan?

–Plaierotan, nik 40 aldiz jokatu diat Zarauzko txapelketa, eta ez denak jarraian.

–Hau kirolari hutsa izan duk.

–Nik beti esaten nioan antolatzaile lanetan ibiltzen zen bati, hainbeste urtean futboleko ibilita ea noiz eman behar zidaten koparen bat. “Zarauztarra bahintz makina bat aldiz”, erantzuten zidaan. Azkenengo txapelketa 52 urterekin jokatu nian. Azken partida, Errege bezpera batean. Bagoazak malekoitik eta jendea zeharo mantso ibiltzen ikusi: “Gaur fenomeno natxiok ni”, pentsatu nian. Kontua zuan pare bat zentimetroko izotza

zegoela... Zazpi gradu zero azpitik. Ibarra taldearekin jokatu nian azken txapelketa hura.

Zumaian ez al zen jokatzeko?

–X.: Bai, baina urte batzuetan eduki zian hutsunea, ez zuan jokatu. Eta Zarauzkoak sekulako indarra zeukaan. Seniorretan 63 talde ere aritu izan gaituk Zarautzen. Aurten 16 talde bakarrik ibili dituk.

–M.: Hi akordatzen al haiz Santiagon, orain kirol portua dagoneko horretan, nola jokatzeko zen?

–Bai, enpresen arteko txapelketa jokatu zuan han.

–Sekulako futbol zelaia zuan hura!

–Hondarra baino gehiago, txirlen oskol zatiak-eta zeudean han.

Manuel Mari, zeuk ez al zenuen plaierotan jokatu?

–X.: Bai, honek ere jokatzeko zian.

–M.: Gutxi, argazki bakarra zeukaat gordeta fut-

Garate: “Guk eskolan dena erdaraz ikasi genian, eta daukagun euskara etxean eta kalean hitz egindakoa duk”

bolean. Gu gehiago mendira. Joakin Zubeldia zuan gure gidaria. Hark mendiaz ikaragarri zekian. Esate baterako, Joakinekin egin genian astebeteko irteera bat Perdidora, Joxe Mari Llavori, Irigoien, Joakin, ni neu eta Imanol semea. Gorizko aterpetxera. Handik bi urtera Piedrafita joan gintuan. Baina han gaizki pasan nian nik.

–Zer dala eta?

–Itzalik ez zegoan eta sekulako intsolazioa harrapatu nian. Orduan erabaki nian mendira bai, baina Euskal Herritik atera gabe. Harrezkero, eguneko irteerak egin genituan. Baztan aldean eta...

Eta saltaka ere ibilitakoa omen zara...

–M.: Hori ere jakin al duk? Bai, egin nitian pare bat maratoi erdi Azpeitian, eta 15 kilometroko beste proba bat Azkoitian. Joxean Agirre eta biok ibiltzen gintuan elkarrekin. Prestatzeko Zakila Buelta egiten genian igandero.

Gazte garaitan izan zen...

–42 urterekin-edo. Lehenago? Lehenago ezin zuan Zumaian saltakarik egin! Orduan hasi zuan pixka bat mugimendua, Manu Gorostolarekin eta. Baina utzi egin behar izan nian, zaintiratuekin-eta hasi ninduan eta.

Biok ere oso gaztetan hasi zineten lanean, 13 urterekin, Xabier Bealen eta Manuel Mari Otto Holken. Manuel Mari, duela hilabete gutxi itxi zen Egurko, herriko kooperatiba bakarra. Haren sorreran ere parte hartu zenuen zuk.

–M.: Gu Xumai kooperatiba sortzeoak gintuan, hamabost lagunen artean. Arrasatera joan gintuan eta han esan zigutean Zumaian beste batzuek ere sortu nahi zutela kooperatiba bat, eta denon artean bakarra sortzeko. Atxurra anaiak eta Añeza anaiak zituan, Ur-Gain tailerreko jabeak. Elkartze horretatik sortu zuan Egurko, 1970ean. 1997an jubilatuta nintzen arte hantxe egin nian lan. Baina aurretik tailer askotatik pasatakoa nauk. Orduan ederra izaten zuan, lan faltarik ez zegoan, eta aukera izaten genian lantokiz aldatzeko eta lan baldintzak hobetzeko.

–X.: Ni Bealen ibili ninduan. Soldaduska egin ondoren, Bealera bueltatu ninduan, baina handik gutxira Alemaniara. Urte eta erdi egin nian Alemanian. Handik bueltan, Mendarora. 1974an Gair tailerra sortu genian, “Garitano, Iraola eta Irureta”. Hor bukatu nian, 65 urterekin. Gero etorri dituk afizio hauek.

Saltsa askotan ibilitakoak zarete biok. Xabier, zeu politikan ere bai. EAJrekin zinegotzi izan zinen diktaduraren ondorengo lehen legealdian.

–M.: Lehen Zumaiko taberna batean jartzen zian: “De política ni hablar; antes de salir pagar”.

–X.: Bai, zinegotzi izan ninduan, kulturakoa. Hain zuzen ere,

XABIER IRURETA

Umetatik gordetako zaletasuna



Erretiroa hartu zuenean berreskuratu zuen Xabier Iruretak umetan garatu ezin izan zuen zaletasuna. “Umetan eskua banian marrazteko eta margotzeko. Eskolan hasi ninduan pixka bat lantzen, baina 13 urterekin mekaniko sartu behar izan nian lanera, etxean premia zegoan-eta. Ez zituan haiek arterako garaiak”. Eta jubilatuta arte. “Egunero gure 10-11 orduak egiten genituan lantokian eta gure burua ez zegoan beste burutaziotarako”.

Ander Hormazuri izan zuen irakasle, Forondan ematen dituen ikastaroetan. “Gero, handik pare bat urtera, neure kontura hasi ninduan”.

Zumaiarekin zerikusia duten gaiak ditu gogoko. Herriko txokoak, eta baita ere nabarmendu diren herritarrak. “Adibidez, arte munduan, Beobide, Zuloaga eta Lucia Lacarra; kirolean, Iñaki Osa Goikoetxea, Oier Aizpurua eta Xabier Lopez (arrantzan). Joxe Mari Kortaren erretratua ere egin nian, enpresa munduan eta herri honen alde egin zuen guztiagatik... Eta horretaz aparte, gustuko argazki edo irudiren bat aurkitzen dudanean, hura ere saiatzeko nauk margotzen”.

Margotzeak asko laguntzen omen dio burua argi mantentzen. “Afizio hau oso ona duk, buruari eragin behar zaizkio, eta burua lanean dabilen bitartean beste gauza batzuk kendu egiten dituk. Estututa dabilen jendearentzat ere oso egokia dela esango nike”.

Badaki jende asko harrizko dela bere zaletasun honen berri izatean: “Batzuek esaten zidatek, bai, ez zutela nire afizio hau ezagutzen, hainbeste margolan ikusita. Baina esaten ziatek, edade batera iritsita, denbora zerbaitekin bete behar dela. Lagunartean ibiltzea ere gustatzen zaiguk, baina guztirako zegok denbora”.

Maiatzaren 10etik 26ra erakutsiko ditu bere bildumako 65 margolan Alondegiko erakusketa aretoan.



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arrantz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirotak@euskalnet.net



OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.
Joxe Mari Korta Induslariak, A1 - 4, pab. 20750 Zumaiak (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak

Julio Beobide Ibiltoxia, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolazal@euskalnet.net Tel./Faxa: 943 86 13 25

OTEZURI
KAFETEGIA

Gosariak
Ogia
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401



La Primavera
pizzeria

Alta Mari, 17, behea
tel. 943 247 011

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353



RUBIO
Pinturak

PINTURAK,
ARTE EDERRAK,
ALFONBRAK,
DROGERIA,
PINTATURIKO PAPERAK,
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788
Erribera 1 behea

talaraia
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370



TALAI-PE
jatetxea-erretgia

Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392

Tapaia
Taberna

Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

TTAKUN TABERNA



Izustarri, 3
tel. 943 865 289

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekook
Plater konbinatuak
Txerri-ukondak (kudilloak)
Salxitzak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartza plaza, 4 behea Tel. 943 573 905

TXORTENA
JATETXEA

Eguneko menua, Asteburukoak,
Parrilla, Wifi gunea,
Plater konbinatuak,
Kazueltak, Errazioak

Oikiako plaza 24.
Tel. 943 865 315
OIKIA



Txingurri
loradenda

Loradenda erribera, 1
tel. 943 861 180

Lorazaintza
tel. 943 860 778
655 703 343

Nekazaritza Injeneru Teknikoak



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

Urola 2000, s.l.
Aroztegia

*Eraikitzen akabera eta dekorazioa
*Baserrien zaharberritzea
*Enbarkazio konponketa
*Ate, zokalo, tarima eta pertsiak
*Armarri enpolaratuen aurrealdea
*Aroztegi metalikoa

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323



Xanti
Altzariak S.L.

Xanti Osa
Arantxa Azkue

Amaia plaza, 13
tel. 943 860 914
657 794 153
Denda: tel./faxa 943 862 385

Zalla



• plater konbinatuak
• ogitartekook
• oilasko erreak

Urola Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

Manuel Mariren andrea, Belen [Golmaio] udaletxean zegoan, itzultzaile. Lau urte egin nitian.

Eta nolako esperientzia izan zen?

—X.: Bat zuzena denean ez dik lotsarik eduki behar inon ibiltzeko. Nik zorrea izan nian, behintzat. Bukatu nuenean, eskuak altxa eta esan nian: “Jaunak, ni banatxiak eta esku garbiki, zorionez”. Beste batek hala erantzun zidaan: “Eta nireak nola daude, ba?”. “Hireak heuk jakingo duk nola dauden”, erantzun nioan. Hortik aurrera, bakoitzak pentsa dezala zer dagoen. Udaletxea, herriarentzat denean, ona izaten duk. Baina politikan bakoitzak bere interesak defenditzen ditik, eta zenbat eta gorago, orduan eta gehiago ahazten dituk herriarekin. Ahaztu.

—M.: Hori horrela duk. Nik bat egiten diat hirekin.

—Bestela, ideologia mailan, gurasoek erakutsi zigutena: abertzaleak. Horrekin hilko gaituk.

—Bai, gu aldatzen hasiko gaituk...

—Gero, abertzaleen artean denetarik izan duk; baina horiek denok ezagutzen dituzue. Bakoitzak berea ahal den zuzenen eraman dezala eta aurrera.

Manuel Mari, zeu politika mailan lanik egin al duzu, halako konpromiso zehatzik izan al duzu?

—X.: Hau gehiago kultura mailan ibili duk.

—M.: Bai, politikan gutxi. Entenditu ere ez diat egiten. Abertzaleasuna bai, eta ezkerreko mugimenduetan beti egin izan diat nire azalpena. Gainontzean, nik ez diat balio eztabaidatzeko.

—Hobe, hobe...

Baina, ur handitan sartu gabe: zuek esperientzia handia daukazue, asko ikusi duzue. Herri honek asko sufritu du. Nola ikusten dituzue garai berriak?

—X.: Nik uste diat orain datorkigun momentu hau latza dela. Denok elkartzen ez garen bitartean gauza zail ikusten diat nik. Mugimendu asko egoten dituk. Batzuetan alderdi zentralistei eskua ematen zieagu; besteetan, beste aldera jotzen diagu... Ez zeukaagu indarririk denok bat egiteko. Nik pentsatzen diat etorriko dela oraindik gizonen bat edo emakumeren bat artaldea bide bakarretik eramango gaituena. Itxaropen hori badiat. Igual ez diagu ezagutuko, baina hori duk bidea.

—M.: Nik ondo ikusten ditiat garai berri hauek. Azken hilabete hauetan gauza pozgarriak gertatzen ari dituk. Askok esaten duten bezala, denborarekin hau geldiezina duk eta, nahiz eta oztopoak izan bidean, aurrera joango duk.

—Bide batetik joango garela?

—Bai. Oraindik elkar ulertu ezinik gabiltzala? Nik uste diat nahiak eramango gaituela bat egitera. Madrilekin hemen ez zeukaagu etorkizunik. Zapalkuntza, besterik ez.

—Hori hala duk.

—Zer egingo dute, ba? Haiek bazekitek Euskal Herriak zer aberastasun ematen duen. Horregatik ez ditek nahi guk alde egitea. Baina denborarekin iritsiko duk. Nik politikaz ez diat entenditzen, baina bidea hartuta gaudela ematen dik. Orain, kostako duk. Lapak haitzari heltzen dion bezala helduko zigutek. ■

MANUEL MARI **GARATE**

Done Jakue bideko harria



Santiagorantz doazen makina bat erromes ikusten ditu pasatzen Manuel Marik Arriketa ondotik. Haientzat izan da amaitu berri duen azken lana. “Duela bizpahiru urte ikusi nian harri zapal-zapala bide ondoan. Harria bera ari zitzaidana zerbait egiteko eskatzen. Hainbeste erromes pasatzen dituk haren albotik, gutxienez gezi bat egitea pentsatu nian. Harria barrura ekarri nahi nian, Arriketara, han lasaiago lantzeko. Agerreko Migeli eskatu nioan laguntza harria mugitzeko. Atera genuenean sekulako harria irten zuan. Lurpean zegoan ezkatatuta. Saiatu gintuan atetik sartzen, baina ezin. Handiegia zuan”. Zailtasunak zailtasun, Arriketako atarian dago harria, jadanik landuta. Santiagoraino 763 kilometro daudela gogorarazten dio erromesari, bidea egonarriz har dezan.

Algorri Interpretazio Zentroan dagoen harria ere berak landua da. “Harraldetik hartu eta, landu eta gero, gordeta eduki nian denbora askoan. Zentroa ireki zenean, pentsatu nian hura zuela lekurik egokiena”. Baserrien izenak ere egin ditu harrian. “Adibidez, Pello Rubioren Txillarre baserrikoa”. Torreberri Gaztetxearena ere bai, beste hainbat lanen artean.

Antton Mendizabal irakasle

“Nik egurra lantzeko afizio betidanik zeukaat, aspalditik. Neure kasa hasi ninduan. Ikusten nitian artisauek azoketako eta erakusketetako lanak, eta asko gustatzen zitzaizkidan. Behin, Donostiako udaletxeko arkupetan erakusketa bat zegoan, kutxak egiten zituen artista batena. Harekin berriketan hasi ninduan, neuk ere zerbait egiten nuela eta... Hark esan zidaan ikastaro bat eman behar zutela, Katalina Erauso elkartearekin. Izena eman nian”. Antton Mendizabal zen kutxak egiten zituen artista hura, eta haren eskutik ikasi zuen Manuel Marik euskal taila. “Erliebea lantzen eta, geroago hasi ninduan neure kontura. Eta duela dozena erdi urte, herriarekin hasi behar nuela bururatu zitzaidana. Eta horrelaxe”.

Casa BASUSTA

CASA
BASUSTA
LORATEGIA

Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,
Lore-zentruak, Koroak,
Landare naturalak eta artifizialak,
Zeramika-lanak eta zumezko saskiak

Etxez etxeko zerbitzua

Santiago buzoa, 18 TEL: 943 862611



KULTUR ETXEAREN URTEURRENA

A LO N DE G IA

Maiatzak 11 - ostirala

19:30ean Aita Mari zinean
"GAZTA ZATI BAT" - Jon Maiaren dokumentala.
22:00etan Oxford aretoan antzerkia:
Aldatzen Laguntzen taldearen "ISPILUA".

Maiatzak 12 - larunbata

19:00etan Kofradian,
"LOS TROTAMUSICOS" soul taldea.
19:30ean Aita Mari zinean
"GAZTA ZATI BAT" - Jon Maiaren dokumentala.
22:00etan Oxford aretoan,
"EUSLANDIA- Unibertso Txiki bat"
(musika, antzerkia, pintura..).

Maiatzak 13 - igandea

18:00etan Oxford aretoan
MONDA LIRONDA Pailazoak -
"DINOSAURO EGITASMOA"
Apika Taldea.
19:30ean Aita Mari zinean
"GAZTA ZATI BAT" - Jon Maiaren dokumentala.

Ekitaldi guztietan sarrera doan.

* Maiatzaren 11ko dokumentalaren emanaldirako
gonbidapenak Turismo bulegoan emango dira
maiatzaren 9tik aurrera.



Zumaia Udalak

MAIATZA

ERAKUSKETAK

Erakusketak Alondegian
Maiatzaren 10etik 26ra:
Xabier Irureta.

DEIALDIAK

Zumaia XXIV. Argazki Lehiaketa: Txuri beltzean, gaia: "Abandonua". Lanak aurkezteko epea: ekainaren 21a.

Maiatza dantzan: Maiatzeko asteburuetan dantza kalean (ikus egitaraua).

Maiatzaren 11an hasita,
Alondegia kultur etxearen urteurren ekitaldiak.

Maiatzaren 25ean hasita:
METAL TOPAKETAK (Informazioa Musika Eskolan 943-86 11 83).

MAIATZA

Ostirala, 18

19:30ean MAIATZA DANTZAN:
Euskal dantzak
22:00etan Aita Marin, antzerkia
"KAFETXINATARRA".

Larunbata, 19

Argazki rallya, Aste Berdearen barruan.
MAIATZA DANTZAN:
19:30ean Zumba dantza kalejira
22:30ean Broadway

Igandea, 20

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia GLU GLU taldearen "Ahatetxo itsusia".

Osteguna, 24

22:00etan Aita Marin, zine forum "Las Acacias".

Ostirala, 25

Estazio Auzoko jaiak, igandea bitartean (ikus egitaraua).
22:00etan Gaztetxean, Argia-Eguzki dokumental: "ERHAL-KANPORA"
25etik 27ra: METAL TOPAKETAK

Igandea, 27

Familia irteera Ludotekak antolatuta (943-14 32 64).
19:30ean MAIATZA DANTZAN:
Capoeira-Dantza afrikarra

EKAINA

Igandea, 10

12:00etan AMEZTU
PRODUKZIOAK "Jolas eta zilarrezko txartela"

Musika Eskolaren ekaineko datak

Ekainak 13, Aita Marin

18:30 entzundia

Ekainak 14, Rock kontzertua kofradian 19:30

Ekainak 19, akordeoi kontzertua Aita Marin (ordua zehazteko)

Ekainak 21, Jaialdia Maria eta Josen 19:00

Larunbata, 23

San Juan suak

Ekainaren 22-24

Nabarherri topaketak: hitzaldiak, musika eta Azoka

Igandea, 23

Oroith abesbatzaren kontzertua, 19:30ean komentuan

28tik aurrera Sanpedroak



GAZTA ZATI BAT

Maiatzak 11, 12 eta 13

Aita Mari zine aretoan 19:30ean.
Ostiraleko saioan Jon Maia egingo du aurkezpena.
Sarrerak doan.

Mitako Ukanaga

Oinetako eta erropak konponketak

Produktu eta material ekologikoa

Zunbilo kalea 8 • 20750 Zumaia • 943 861 252 • 652 727 740

Zumaia Hotela

Jatetxea Kafetegia

Añai suzategia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

EuroTaller

ZUMAIA MOTOR, S.L.

José Rey Alfaro Gerente

Santxo Auzoa, 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Telf. 943 143 143 - Fax 943 865 161
e-mail: zumaiaomotor@telefonica.net

ZUMAITA AUTO-ESKOLA

- Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA:**
Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behea • tel. 943 86 10 18 • ZUMAIA

Zumaia optika

Txomin Agirre kalea, 6 tel./faxa: 943 143 057

TXALAPARTA OPARIAK

Angelos Sorana, 2
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
faxa. 943 130 637

Bertako informazioari, bertako produktuak

EKAIN

Egin HITZaren harpidedun apirilaren 3tik ekainaren 1era, eta jaso

Ekain sagardoa
6 botilako kaxa bana

Harpidedun egiten diren guztien artean

Leketto Metrokua hotelaan, bi pertsonarentzako asteburu baterako egonaldia ZOZKATUKO DUGU

Harremanetarako:
902-82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza info

Zumaian Flyschpatu



Maiatzaren 6an Gipuzkoako Bertso Eskolen eguna ospatu zuten Zumaian. Bideo bat grabatu zuten Ze esatek! taldearen abesti batekin, hitzak bertso hauekin moldatuta.

Kostaldean, herri txiki batean
Olatuen joan-etorritz,
aurkitu nuen laguna
maiatzean, apar zurien artean,
Ailegatu zaigu berriz,
Bertso eskolen eguna

Zuen ahotsa aditu nahi dut
potoak ere ozen kantatu
errimak barku, hitzak olatu
elkar gaitezen eta flyschpatu!

Lagun zaharrak aurkitu,
harremanak berritu,
bertsoa aitzaki dala
Gozatu dibertitu,
eta besoak mugitu,
olagarroak bezala

Ta sutara aurreiritzi ta lotsa
Gu uretakoak gara
Gaziak eta freskuak
Pikutara joan da neguko hotza
Orain udaberria da
Luzatu zortzi eskuak
Ta gu gara, hemen protagonista
Barrerik ez dugu falta
Goiz-goizetik iluntzera
Zumaiaira heldu zaren artista,
Eguna luzea da-ta
Ez pentsatu bukaera

Zumaiaiko, herria goitik-behera
Aztoratu behar dugu,
Dantza, bertso eta jolas,
Sekulako giroa ta aukera
egun osoan daukagu,
Tope gozatzeraz goaz!





Kalitatezko
produktuak

Gipuzkoako
Okelaren
Ziurtagiria:
GI-OKELA

Juanjo Larrañaga harategia



Eskaintzak:

TXAHAL TXULETA
14.90 €/Kgr.

DILASKO BULARRA
5.90 €/Kgr.

TXERRI TXULETA
burualdekoa
3.90 €/Kgr.

ZUMAIA

Basadi auzategia, 4. Tel./Faxa: 943 860 621

ZARAUTZ

Salegi kalea, 14. Tel./Faxa: 943 890 215



LEIALTASUN TXARTELA 2012



HILABETEA	EGUNAK	SARIA	AZALPENEA
OTSAILA	1-29	SASOIAN JARTZEKO	10€-ko erosketa txartelak hauetan erabiltzeko: botikak, parafarmaziak, edergintza zentroak, belar dardak, fisioterapia zentroak, optikak, ite-aparidegiak eta talasoterapiak...
MARTXOA	1-29	PINTXO-POTEA	2 PINTXO POTE
APIRILA	1-30	UDABERRIA ZUMAIAN	5, 10, 20 eta 50 €-KO EROSKETA TXARTELA
MAIATZA	1-31	UDABERRIA ZUMAIAN	5, 10, 20 eta 50 €-KO EROSKETA TXARTELA
EKAINA	1-30	MERKATARITZAREN ASTEA	% SEKO DESKONTU FINKOA EKAINEKO LARUNBAT BATEAN
UZTAILA	1-30	UDARA HEMEN DA	2 LAGUNENTZAKO BAZKARI/AFARIA. BALIOA 60 €
ABUZTUA	15-31	ESKOLARA ITZULTZEA	ESKOLARA ITZULTZEA, 5, 10, 20 ETA 50 €-KO EROSKETA TXARTELA
IRAILA	1-30	ESKOLARA ITZULTZEA	ESKOLARA ITZULTZEA, 5, 10, 20 ETA 50 €-KO EROSKETA TXARTELA
URRIA	1-15	ESKOLARA ITZULTZEA	ESKOLARA ITZULTZEA, 5, 10, 20 ETA 50 €-KO EROSKETA TXARTELA
AZAROA	15-30	BEZEROAREN HILABETEA	%SEKO DESKONTUA EZUSTEAN
ABENDUA	1-15	EGUBERRIA	5, 10, 20, eta 50 €-KO EROSKETA TXARTELA